

**AITA NARTZISO (JOSE ANTONIO GARATE MUGICA),
1900-1974.
BERE JAIOTZAREN EHUNGARREN URTEAN**

Sarrera

Norbaiten mendeurrena dugunean, hura oroimenera ekartzeko abagune ona izan ohi da; areago oraindik, bere ekintza eta garrantziagatik pertsona aipagarria izan bada.

Gaur, haren jaiotzaren ehungarren urtea aitzakiatzat harturik, karmeldar euskaldun bat ekarri nahi dugu *Karmel* aldizkariaren orrialdeetara. Erligioso gazteen hezitzailea izan genuen; gerrateko urte latzetan bizi izan zen eta euskaraz idazteko tartetxoak ere hartu ohi zituen, batez ere bere bizitzaren azkene-rantz. Gutxi idatzi zuen, dena dela; itzulpen-lan bat, frantsesetik euskara, baina *Lauaxetaren azken olerkia* ere utzi zigun.

Hartaz idazlan labur eta gutxi batzuk baizik ez dira idatzi. Lehenengoa, haren heriotza zela eta agertu zen Nafarroako San Joakin Probintziako Buletin Ofizialean (1974, 82.zk.) 532-534. Zio beragatik gogoraraziko du Lino Akesolok ere *Goiz-Argi* aldizkarian 15 (1974, 189.zk.) 6. Eta, orain dela gutxi, Julen Urkizak karmeldar euskal idazleen zerrendan sartu zuen *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*

(Larrea-Zornotza, 1992, 424-425) izeneko bere liburuan. Gasteizko Karmeldarren Probintzi Artxiboan (GKPA) Aita Nartziso beraren ohar autobiografiko batzuk daude.

1. Bizitzako datu batzuk eta haren izaera

Aita Nartziso, bataio izenez Jose Antonio zen, Jose Antonio Garate eta Maria Mugikaren semea; Azkoitian jaio zen 1900. urteko urtarrilaren 17an. Bere jaioterrian lehenengo ikasketak egin ondoren, Nafarroako Alesbesera, karmeldar ikasleen ikastetxera, joan zen letrak edo giza zientziak ikastera.

Larreako karmeldarren nobiziatuan sartu zen, 1918ko uztailaren 12an profesia eginez. Letrak Markinan amaitu zituen. Filosofia eta Teologia ikasketak Gasteizen eta Begoñako Karmelon (1919-1926). 1925ko irailaren 19an sagaratu zuen apaiz Donostiako Santa Maria elizan Zacarias Martinez gotzainak. Balio handikotzat zuten, nagusiek harengan egin zituzten ametsak erakusten zuten, apaiztu baino aste batzuk lehenago teologiako irakasle izendatu baitzuten Begoñan.

Afrikara joan beharra izan zuen, 1926ko martxotik azarora bitartean, Melillan armadako kapilau izanez.

Bere bizitzako urterik onenak karmeldar gazteen hezierari emanak izan ziren. Karmeldar apaiz gazte zeneko lehen urteak estudioan murgildurik igaro zituen; hau da, 1925etik 1928ra teologiako irakasle izan zen Begoñan, 1928tik 1933ra letretako irakasle izan zen Markinan eta 1933tik 1936ra filosofiako irakasle Gasteizen. Beste hiru hiru urtealditarako nobizio gazteen maisu izendatu zuten (1947-1954, 1960-1963). Beraz, gazteen hezierari emana izan zen 18 urtean gutxi gorabehera.

Geroago komentu batzuetako nagusi ere izan zen: Soton (Kantabria, 1938-1942), Larrean (1942-1945) eta Altzon (1963-1966); Probintzialaren aholkulari hainbat urtetan (1936-1938, 1945-1948, 1951-1954), eta prioreorde Gasteizen (1933-1937) eta Larrean (1947-1954, 1960-1963).

Beste kargu batzuk ere izan zituen, esaterako, diruzain Larrean eta Markinan, probintziako epaktaren egile sei urtean. Sermoigintza eta aitor-entzule lana ere ez zituen alde batera utzi; zeregin batzuei buruz zertxobait idatzirik utzi zuen berak: “He desempeñado en Marquina y Larrea el oficio de procurador y el oficio de predicador, por cierto sin gran ocupación, en todos los conventos donde he vivido, y lo mismo el oficio de confesor, aunque creo que con más aceptación”.



Azken urteak Altzon igaro zituen; bakardade honetan ez zen, hala ere, geldi egon, Santa Teresa Lisieuxkoaren autobiografia itzuli baitzuen; gerotxoago hitz egingo dugu honetaz. Baina haren osasunak txarrera egin zuen. Lehenengo ikusmenarekin arazo larriak izan zituen; Donostiara eraman zuten eta han jarri zioten tratamenduarekin lehengora ikusmena lehengora etortzea lortu zuen. Gerotxoago tronbosi-seinale batzuk izan zituen, haien ondorioz hitz egiteko ahalmena galdurik, burua guztiz argi izan arren. 1973ko abenduan eserlekutik jai-ki ezinik ikusi zuen bere burua. Laguntza bereziak behar zituen eta Donostiako Zaharren Ahizpek jaso zuten. 1974ko martxoaren 10ean joan zitzaigun.

Gizon jainkozalea eta baketsua zen. Gaixorik zeneko azken urteez ari dela, bere idazlanaren hasieran, ongi adierazten du Lino Akesolok Aita Nartzisoren izaera: "Pakezko irri gozoa ez-paiñetan, azkeon-urteotan bizi zan bezela, ixil-ixillik joan zaigu gure artetik aita Narkis. Aspalditxotik zegoen gaizki. Irri gozoa ea esker onezko begirada bizi samurra, ia besterik etzuen, agurrik edo mesedetxorik egiten zitzaionean. Itz egin nai eta ezin egin. Ura aren ezin egona! Baiña aren begiradak naiko argi esaten zuen mingaiñak ezin zuena. Begirada irritsu bizi gozoa zuen bere erantzunik eder eta osoena".

Gogoko zuen pilotan jokatzera eta nobizioak kirol hori eginenez josta zitezela nahi izaten zuen.

Gizon arteza zen eta irmoa, zuzen zena zeritzonari eusteko. Bere justiziaren aldeko izaera eta zentzu ona ongi erakutsi zituen, baita Ordena barruan ere, gerrateko une gatazkatsuetan. Nagusi batzuk Frankoren aldeko amorratuak ziren. Bazen bisitari bat, A. Silverio Santa Teresarena (Burgosko karmeldarren probintziakoa), gizon baliotsua beste arlo batzuetan, baina txaxarra eta guztiz politizatua, bere gutunetariko batzuetan eta karmeldar Euskal probintziarekiko harremanetan erakutsi zenez. A. Nartziso, gero agertuko zenez, libre zegoen politikakerietatik eta oso estimatua zen, 1936an probintziako definidore edo aholkulari eta definatorioko idazkari izendatua izan baitzen. Gasteizko prioreorde ere izendatu zuten; baina hurrengo urtean bere karguei uko egin zien, berak baino hobeto egin zezaketenak bazirela esanez. Euskaltzaleak zirelako bidegabe ki baztertuak izan zirenak zituen gogoan hau esaterakoan. Kargua uztea 1937ko ekainaren 22an izan zen; Probintziako Definitorioak ontzat eman zion Gasteizko prioreorde karguari uztea, baina ez probintziako aholkulari edo definidore karguari uztea. Hurrengo hilean Donostiara bidali zuten, eta irailan Soto Iruz-era, hango nagusi izateko.

Erromako Artxibo Jeneralean gordetzen den bere eskuz idatziriko gutun batetik dakigu beste zerbait gehiago karguei uko

egite horri buruz; Sototik Jeneralari idazten dio eta zergatik karguak utzi nahi zituen azaltzen dio; hau da, Gasteizen, ikasleekin batez ere, bizi izan zuen egoerak eraginda, eta gerra zibila zela-eta maitasunaren kaltetan izan ohi ziren eztabaida garrantzak eraginda, utzi nahi izan zituen karguak. Orain Soto Iruz-en, etsita, A. Jeneralari eskatzen dio, hautatzeko nahiz hautatua izateko ahalmena kentzeko, besteen gain zituen arduetatik askatuz, isil-isilik erretiratu eta barruko bizitzari emanda bizi izateko. A. Jeneralak, haren berri handik eta hemendik jakin ondoren, ezetza eman zion. A. Nartzisok, beraz, bere lan eta karguetan jarraitu zuen.

Artxibo Jeneral horretan bertan bada A. Nartzisoren 8 folio-ko beste txosten bat. Ordenak zenbait pertsona eta komenturi, konstituzioei, hezierari eta abarri buruz iritziak eskatzen dizkie. A. Nartzisok, Larreako nobizioen maisu zen aldetik, bere txostena bidali zuen. Irakurketa espiritualaz ari da; praktika horren garrantzi handia azpimarratzen du, guztion esku dagoen bitarteko baliotsutzat joz santifikatze bidean. Eta nobizioentzat libururik onuragarrienak zeintzuk diren ere agertzen du.

2. Lauxetaren azken olerkia kartzelan.

A. Nartzisok, Lauaxeta, *Bide barriak* (1931), *Arrats beran* (1935), eta abarren egilea dugun olerkari handiaren kapitulu txiki batean ere esku hartzen du. Lauaxeta, beste batzuekin batera, euskararen pizkundearen eta derrigorrezko ezkutatzearen seinale bihurtu da.

Bizkaitar olerkari handi hau, kargu politikoa ere bazeukana, atxilotua izan zen eta bi hilabetean kartzela bihurturik zegoen Gasteizko Karmeldarren komentuan bizi izan zen, 1937ko ekainaren 25ean fusilatua izan arte. Ez zen bakarra izan. Euskal kulturaren sustatzaile handi izan genuen Jose Ariztimuño Olaso "Aitzol" apaiza ere preso hartua eta fusilatua izan zen (18-X-1936). Beste idazle batzuk ere fusilatuak edo desagertaraziak izan ziren, esaterako, "Lur Gorri" (Jose María Azkarraga),

“Aberri”, Elgoibarko semea etab. Aldizkari eta egunkari batzuetako idazleak ere kartzelaratu edo bizion bistatik aldendu zituzten, esaterako, *Euzkadi* egunkarikoak... Beste euskal idazle askok kartzela gorria jasan zuten, euskaraz idazteagatik, hain zuzen ere. Hau gertatu zitzaien, esaterako, karmeldar idazle batzuei; Lino Akesolo, Santi Onaindia etab. Aipa genitzake hauen artean¹. Euskararen alde egin zuten apaizek prezesuak eta zigorrak jasan behar izan zituzten; esaterako, Mariano Torres-i, abertzaleen aldekoa izatea, euskal gaietan jakintsua izatea eta euskaraz sermoiak egiteko zaletasuna egotzi zizkioten.

Apaiz eta laikoen kontra bidegabekeria horiek ikusirik, Mateo Mujika Gasteizko apezpiku-ohiak haien aldeko gutun bat idatzi zion Aita Santuari: “Siguiendo las normas de la Iglesia se ha fomentado lo conveniente, en el Seminario, el idioma vasco, lengua vernácula de la mayor parte de los habitantes de Guipúzcoa y de Vizcaya, preparando a los seminaristas para la catequesis, predicación y para las confesiones que la inmensa mayoría del País hace en vascuence. Y esto, que es acatamineto a la ley natural, a la legislación positiva de la Iglesia, constituye también ahora, en las presentes circunstancias, nacionalismo. ¡Cuánta injusticia y ridiculez!”².

¹ Lino Akesolo “ain zuzen auzitegira eroan eben militarrek eta *Karmen'go Argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera. ‘Ya ven, - esaten eban gogor salatzaileak - Karmengo Arjia (olan esaten eban berak). Hasta el título es separatista’. Orra berak autortu eta saltu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: cuskerea bera zan euren arerioa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nai izan nebanean, maipurukoak: ‘Calle y siéntase’. Eta fiskalak amabi urteko espetxea eskatzen zituen arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan. Gorrotogarria zan Karmengo Ama, gorrotagarria Avilako Teresa andia eta Joan Kurutzekoa, gorrotagarriak gure Indiako eta Ameriketako mixiolariak eta euren lanak, gorrotagarriak euskeraz egiten zan edozein lan”: Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, I. Larrea-Zornotza, 1989, p. 35, (Karmel Sorta, 1*).

² Ik. (Vicente TALON), *Salpicaduras de la tormenta*, en: *Los años negros (y II)* (Memoria de la Guerra de Euzkadi. Cuaderno nº 11) (Extras. Defensa, revista internacional...), p.670

Giro sozial, politiko eta erlijioso honetan kokatu behar dugu Lauaxetaren heriotza eta haren azken olerki horren idazketa; olerki horretan bizi-bizi eta kemenez betea agertzen zaigu olerkaria, fedez eta maitasunez gainezka. Gorrotorik gabe eta itxaropenez. Hain zuzen ere, A. Nartzisori zor diogu olerki hau eta beste batzuk gorde eta ondorengoei iragan izana. Honela diosku lekukoetariko batek, A. Lino Akesolok:

«Bada besterik ere aita Narkisi (eta beste Leringo seme izan zen karmeldar bati) zor diogunik; Lauaxeta zanaren azken-olerkiak, il-aurretxokoak, euskerazko eta erderazkoak, egilleak berak utzirik, gorde zizkigun. Urteak geroago nerau izan nintzan bitarteko, olerki aiek Lauaxetaren aitari eramateko. Ez, lenago kopia bat atera gabe. Orain zazpi bat urte, azken-olerki aiek liburu batean ateratzeko dana gertu zegoen. Lauaxetaren etxekoek utzitako kopia utsez beterik zegoen eta neronek eman bear izan nuen nerea, okerrak zuzentzeko. Liburua etzan azaldu. Gure artean ordurezkerok sortu ziran istilluek beldurra sartu zieten nonbait artan zebiltzanei eta atzera eragin. Orain, ez liburu ez kopia, gelditu naiz. Aita Narkis zanak, orraitio, bere eskuetan gorde zuen bat, gure arteko García Lorca izan genduenaren esku-idatzia, orijinala, paperzati erdi puskatu batean egiña. Gasteizen, 1936-tik aurrera, karmeldarren etxearen alde aundia kendu zieten agintariak prailleei, espetxetako. Narkisek al zuen guztia egin zuen ango espetxeratuen ordu beltz mingotsak eztitu eta arintzen. Lauaxeta zanaren azken-bertsoak olaxe iritzi ziran fraideen eskuetara».

Kartzela honetan idatziko zuen, beharbada, Aita Nartzisok gorde eta eman digun azken olerkia eta 1937ko ekainaren 2ko data duena; hemen adierazten du bere bizitza osoan izan zuen fede bizia, ahapaldi hauekin amaitzen dena:

“¡Ven, Señor!, con secreto viento
 tu Espíritu mueva mis ramas,
 y con brisas bese las llamas
 la paz divina de tu aliento.

Surjan incendios en mi pecho,
 que quemén los frutos de muerte.
 Tu libertad me ate tan fuerte
 que sea tuyo por derecho.

Así, Señor, tu voz me fuera
 - con la belleza por misiva -
 lleno de perdón mientras viva,
 lleno de gracia cuando muera”³.

Lehen aldiz argitaratu nahi izan zenean, A. Nartziso berak gutun interesgarria idatzi zion Juan Angel Etxebarriari, 1968ko apirilaren 21ean, eskuizkribu hau dela-eta:

“Nik emen ez daukot Lauaxetaren olerkitxo bat besterik. Laburra da, otoitz bat, «¡Ven, Señor!» daroa izenburutzat. Beridatzia ez da, bere eskuz idatzia baño. Orregatik oso balio aundikotzak daukot. Idazkera bera be gogoangarria da. Bederatzi lauko dira erreskada bitan idatzita. Zazpi ezkerrean lerrokatuta dagoz, bi eskuman. Ezker-eskumako lerroak, banakatzeko L aundi bat jarri dau. L orren gañeko txapelaren gañean lurrin-ontzi bat otoitzaren iruditzat-edo. Arri-ikatzez idatzia dago. Olerkitxo onek, nire eritxiz, argazkiz (antz-berdiñez, facsimil-ez) argitaltzea merezi leuke. Ori zeuek ikusi bear dozuena da. Argazkia bidaliko dautzut, ez eskuz idatzia. Aita Lino Akesolo astero etorri oi da onera, eta aregaz bidaliko dautzut”⁴.

³ E. URKLAGA, *Oleri guztiak*, Bilbao, 1985, 410-412. (Aita Onaindiak prestatua).

⁴ *Ibid.*, 409. or.

¡Ven Señor!

Señor, ¿que buscas en mi pecho?
¿El alma, la cubrió de hielo?
¿En rastro, que signaba todos
los ruinas lo dije deshecho?

¡Ven Señor, borra de mi frente
aquel resplandor de tu cara
que al espejo del agua clara
prestó cristal mas transparente?
¿Que bellas fueron mis pisadas
cuando la gracia florecia,
en las alas del nuevo día,
que robó luz en tus miradas.

¿Cuan presto, cubría tu estancia
y la sombra de tu figura
pues una sutil hermosura
me guiaba, con su fragancia.

¿Pero pasaste por mis muertos,
con sus claros ojos y gracia
para que la flor fuese hacia
y los frutos nacieran muertos?

¡No Señor!, melvan sus caminos
con hermosura siempre nueva,
y en señal mi amor recuerda
para seguir tus pies divinos

¡Ven Señor!, con secreto viento
tu Espíritu mueva mis ramas,
y con brisas, bese las llamas,
la paz divina de tu aliento

¿Que incendios en mi pecho
que queman los patos de mi vida.
¿La libertad me dejó tan fuerte
que sea tuyo por derecho?
¡Ven Señor, tu voz me fuera
con la bellera por mis iras,
después de perdidos mis días,
línea de quina, cuando naciera

Estela
Victoria
Pasion
Carmelitas
2-6-1987
Victoria

3. Euskal idazle: itzultzaile.

Aita Nartzisok, Ordena barruko arduetan jardun beharra izanik, ia ez zuen astirik izan barruan zuen euskal idazle-sena agertzeko; bestalde, ezin dugu ahaztu garai hartan hainbat idazleren ahalegina etenda gelditu zela; adibide argitzat aipa dezagun Gabirel Jauregiren kasua. Zientziazko liburuak euskaraz idazten lehenengoa izan genduen; *Pisia* (1935), eta *Kimia* (1936) utzi zizkigun, eta giza zientzietako hirugarren bat argitaratzeko bidean izanik, Frankoren altxamenduak eta diktadurak eragotzi zioten argitaratzea. Gasteizko irakasle-lana utzi behar izan zuen eta gehiago ez zuen ezer idatzi. 50 urte zituela Zornotzako Larrean hil zen 1945ean. A. Nartziso, ingurumari sozio-politiko latz hartan ez zen horretara menturatu.

Hala ere bere bizitzaren azkenerantz, Altzon, hain lanpeturik ez zala, eta aipaturiko estura eta giro txarrik gabe, Santa Teresa Lisieuxkoaren autobiografia itzultzeari ekin zion. Lehenago beste batzuk ere horretan saiatu ziren, esaterako, Lino Akesolo eta Santi Onaindia, Gasteizen oraindik ikasle gazteak zirela, baina haien eskuizkribua galdu egin zen (?); eta han eta hemen zenbait zati itzuli ondoren, A. Honorio Gerenabarrenak (1912-1992), obra osoa itzuli zuen eta "Teresatxo deunaren bizitza" jarri zion izenburutzat; inprimategirako prest-prest zegoen, baina es zen argitaratu. A. Sebastian Atutxak (1909-1964) Teresaren idazki autobiografikoen sail handi bat itzuli zuen Altzon.

Obra hau argitaratzeko ahalegin serio bat A. Nartzisok burututakoa da. Oso arretaz egindako euskal itzulpena gauzatu zuen, inprimategirako ongi orrazturik, baina ez zen argitaratu: JESUS AURRAREN TERESA DONEA, *Eskuidatzi autobiographikoak (Arima baten Kondaira)*. Eskuizkribuak 197 orrialde ditu.

Oso ondo ezagutzen zuen euskara, eta joskera erraza eta herri kutsukoa zuen. Itzulpenean honek darabilen euskarari buruz hona hemen Lino Akesoloren hitzak:

«Aita onek gutxi bezela ezagutzen baizituen euskeraren korapilloak, baiña etzigun artean erakutsi aundirik eman. Bere karguek nonbait, ez zioten astirik utzi idazte-lanerako. Ezer egiterakotan, ori bai, jakiña zan etzuela ala-ola idatziko. Euskera errez, errikoi, garbi jatorrez idatziko zuen. Ainbat euskal liburuk eta ainbat itzulpenek, batez ere, etzioten bat ere gogorik betetzen; erderari lotuegi aurkiltzen zituen eta erdal-kutsuz gainezka. Irizmen zorrotzekoa zan orlan. Zorretan zegoen gurekin eta euskerarekin. Nolabait erakutsi bear zuen bere iritzia egiztatzeko gai zela. Eta uste genduen, euskal-maisu bati zegokiona atera zitzaion bere itzulpena. Bertsozko zati batzuetako bakarrik eskatu zuen laguntza, eta nik ere nere alegintxoan egin nuen Teresa doneak tartean sartzen dituen bertso batzuk euskeratzen».

Itzulpen honen zertzelada batzuk ematea komeni da. Garai hartan euskara baturik ez zen eta nork bere euskalkia erabili ohi zuen eskuarki edota gogokoen zuena. A. Nartzisok gipuzkerara itzuli zuen Teresatxo santuaren autobiografia. Bere aurreko itzultzaileek egin ez zutena, A. François-en frantsesezko testu original berrezarrikotik euskaratzen du, hau hasi baitzen *“Manuscrits autobiographiques”* izenburua erabiltzen *“Histoire d’une Ame”*ren ordez.

A.Nartzisoren lana handia izan zen, baita bere testua hobetzeko egin zuen ahalegina ere... Izan ere, hiru idazketa desberdin (edo makinaz egindako kopia) ezagutzen ditugu; eta azkenengo eta behin betiko idazketan, esku desberdinek egindako hainbat ukitu agertzen dira. Zuzentzaile nagusia, hala ere, A. Lino Akesolo izan zen.

Itzulpen hau dela dirudi ordurarte egindako guztietatik onena. Honen kalitateaz Lino Akesoloren iritzia jarri dugu pixka bat gorago. Zer besterik gehi dezakegu? Bere garaiko agertzen zaigu itzulpenean. Garbizalekeriak ez du kutsatu; herri-euskeran idatzi nahia igarri-igarrikoa dela esango nuke. A. Lino akesolok dioenez, zenbait itzulpen ez zitzaizkion gogoko.

Horregatik, berak egindako honek itzulpen usainik izan ez zezan kontu handia jarri zuela dirudi. Hori desiragarria da, baina gerta daiteke libreegi jokatzea. A. Nartzisok Teresatxo santuaren ideia ahalik ondoen jaso eta euskaraz hura egoki adieraztera jotzen du. Batzuetan, originalean ez dauden sintagmak eta esaldiak gehituko dizkio, hango idea adierazteko; beste batzuetan, esaldiei, eskuartean erabilita, gurpil edo joskera berezia ematen die. Betiere, irakurlearentzat gozo gertatzen da haren itzulpen-testua. Ez da testu gogor eta irensten zaila den horietakoa.

Erromara egindako bidaiaren ataltxo bat jarriko dugu adibidetzat eta ondoren, guk 1996ko argitalpenean egindako itzulpeneko ataltxo bera:

“Pozik alde egin nuan Bolonia´tik. Uri au eramangaitz biurtu zitzaidan ikaslez beteta zegoalako, eta oñez ibilli bear genduanean, ikaslez inguratuta arkitzen giñalako; eta batez ere, eurentariko batekin gertatu zitzaidan gora-beratxo bategatik, pozik artu nuan Loreto´rako bidea.

Ez naiz batere arritzen Andre Mariak Loreto aukeratu izana bere Nazaret´eko etxea ara aldatzeko. Pakea, alaitasuna eta aberastasunik eza jaun eta errege bezela dira han; dana da bakun, dana agiri da an antziña bezela. Ango emakumeak Italia´ko jazkera politari eutsi diote eta ez dira Paris´ko era berrietara jazten. Ara! Loretok lilluratuta utzi ninduan!

Zer esan Etxe santuari buruz? Ai! Etzan makala izan nere barruan oartu nuan biotz-ikara, nere burua Famili Santua bizi izan zan etxean bertan ikusi nuanean; Jesus´ek bere jaungoikozko begiekin ikusi zituan ormak begiratzean; Jose deunak izerdiz bustitako lurra zapaltzean, Mariak bere sabelean eraman ondoren gero bere besoetan Jesus eraman zuan leku berean egotean... Aingerua Maria´ri agertu zitzaion gelatxoa ikusi nuan... Jesus aurtxoak erabillitako katilluan euki nuan nere errosarioa. Oroitzapen lilluragarriak, benetan!

Baña Jesus bera bere etxean artzea izan gure zorionik aundiena. Jesus´ek bertan bizi izanaz goretsi zuan leku artan gure biotza Jesus´en bizi-leku biurtuta ikustea alegia” (A. Nartziso).

□*□*□*□

“Pozik alde egin nuen Boloniatik. Hiri hau jasanezina egin zitzaidan, guztia betetzen zuten eta, oinez irteteko zoritxarra genuenean gure inguruan hesia egiten zuten ikasleengatik; eta batez ere, haietariko batekin izan nuen gorabehera txiki bategatik. Poztu nintzen Loretorako bidea hartu genuenean. Ez naiz harritzen Ama Birjinak bere etxe bedeinkatua hara aldatzeko leku hura hautatu izanaz. Hango bakea, alaitasuna, pobretasuna berebizikoak dira. Guztia da xumea eta jatorrizkoa. Emakumeek italiar janzkera polita gorde dute eta ez dute hartu, beste hiri batzuetan bezala, Parisko moda. Hitz batez, Loreto liluragarri gertatu zitzaidan. Zer esango dut Etxe Santuaz? Ai! Nire zirrara sakona izan zen Familia Santua hartu zuen aterpe berean neure burua ikusiz, Jesusek bere jainkobergiak ezarri zituen hormak begiratu, San Josek bere izerdiz busti zuen lur berbera zapalduz, Mariak, lehenago bere sabel garbian eramanez ondoren, bere besoetan Jesus eramanez zuen tokiak... Aingerua Ama Birjinagana jaitsi zen gelatxoak ikusi nuen... Neure errosarioa Jesus Haurraren katilu txikian jarri nuen... Oroitzapen hauek bai direla zoragarriak!...

Baina gure poztasunik handiena Jesus berbera bere etxean hartzea izan zen eta hark bere presentziaz ohoratu zuen etxean bertan haren tenplo bizi izatea” (Luis Baraiazarra).

Luis Baraiazarra - Julen Urkiza